

Erraldoi eta buruhaundiak

*Erraldoi eta Buruhaundien eramale
izan ziren eta diren horiei,
beraiek eraman zutelako eta daramatelako
alaitasuna oreretar herrira.*

NOSTALGIA ETA BIZITASUNA

Hitzaurrea

Nostalgia eta Bizitasuna, atzo eta gaur, erlikia eta modernotasunak bat egiten dute Erraldoi eta Buruhaundietan, zeintzuen nortasunaren mamia, modak eta denboraren igarotzeak baino indar gehiago duten sekretu eta haur-zirraren mami bera da. Eta gauza da badirela betiko diren gauzak.

Gezurra dirudi bizi garen garai hauetan, informatikaren zibilizazioan murgilduta, ingeniartzatza genetikoan, irudien digitalizazioan, 2000 urtetik pausu batera, gezurra dirudi diot, Erraldoi eta Buruhaundien dibertimendua bezain sinplea den zerbait bizirik irautea.

Eta gauza zera da, jaia ez dela hondakin zahar bat bezala mantentzen, eta ez dela aurkikuntza arkeologikoa bailitzan berreskuratua izan; aitzitik, bizirik dirau, eta herriaren laguntzari esker oso osasun onaz gozaten du.

Batzuentzat, edozein gauza zaharrek uzten duen malenkoniaren itxura nostalgiko eta ia negargarrian datza indar hau. Zahartutako heldu askok beren haurtzaroko estanpak bezala gogoratzen dituzte korda-trenak, tranbiaren bidaiak eta Demonioa, Indiarra, Xaku eta Lepo gure kaleetan zehar atzetik zituzten aldi hura.

Baina nire iritziz, jaiaren indarrak beste oinarri batzuei egiten die men. Erraldoi eta Buruhaundien ospakizunaren mamia, irudiez gain, Erraldioen begiradapean haur multzoa eta bere jarraitzaileen artean ematen den harremanean datza -irainen dialektika zorrotza-.

Umek multzoan bilduta, Buruhaundiak deitzen dituzte apelatibo iraingarriekin, eta hauek multzoaren kontra ekiten erantzuten dute, dorpe edo korrika gutxien egiten dutenen ipurdiak berotuz, trebeenak atari eta kalemuturretan babesten diren bitartean.

ERRALDOI ETA BURUHAUNDIAK

Sarrera

Oreretar ohiko estanpen artean Erraldoi eta Buruhaundien Konpartsa nabarmentzen da bere jai eraginarengatik; jai ospakizun askoren nahitazko osagarria izanik, berau gabe, ospakizun jakin batzuk beren zentzuaren funtsezko parte bat galduko lukete, Erraldoi eta Buruhaundiek, maiz, herri desberdin askoren seme argitsu eta ospetsuak pertsonifikatzen dituztelako.

Informazio zehatzena lortzeko saiakeran, garai desberdinetan datatutako agiriak kontsultatzerako behartu nuen nire burua: aktak, eskuizkribuak, fakturak, hemerrotekak eta abar.

Artxibategi Munizipalean Konpartsa hauek zein urtekoak diren aurki dezakegu eta ezer gutxi gehiago, ez baitago bibliografiarik ezta libururik ere non Gipuzkoako Erraldoi eta Buruhaundien Historia jasotzen den, eta kontsultatu ditudan liburudenda, liburutegi eta abarretan ez dut arrakastarik izan.

Zoritarrez, ezin dut Euskal Herriko herri, etxegune eta hirietan dauden konpartsa guztiei buruz hitz egin, hauetariko askoren inguruan dagoen informazioa osagabea, oso gutxi argitzen diguna eta egiaztatzeko zaila baita. Beraiei buruz informazio ugari eta zehatzagoa dudana konpartsak aukeratu ditut.

Euskal Herriko lehen Erraldoi eta Buruhaundien Konpartsa, jatorriz, XIV. mendekoa da (Iruñean) aztarna adierazgaitzekin bada ere, 1600. urteko data zehatzagoa delarik.

Bizkaian datarik zaharrena 1605. urtekoa da, Gipuzkoan 1622. urtekoa jasota dago (Azpeitian), eta Gasteizen 1643. urtekoa da.

Oreretako Erraldoi eta Buruhaundien Konpartsari dagokionez, 1919. urtekoa da bere datazioa, Erral-



Sarrera. (Argazkia: Jose Luis Insausti).

doi bat, Erraldoi eme bat eta bi Buruhaundiz osatu-
ta egonik, urteen igarotzearekin batera zabalduko
zena.

Orain dela urteak hartu nuela gogotan aipatuta-
ko konpartaren bizitzari buruz ahalik eta datu
gehien bildu, Euskal Herriko gainontzeko kon-
partsekin batera, eta lan edo artikulu bakar bate-
an antolatzea, bidean topa nitzakeen zailtasunak
jakinez ere.

Baina hain handia da gure konpartarengan dudan
oroitzapen nahiz maitasuna, lan hau prestatzeko
eragin didana izan dela, Euskal Herriko kultura
herrikoia zabaltzearen irrika bezala, azken finean
herriengatik etorritako eta zaindutako ohiturak.

KONPARTSEN JATORRIAK

Ezezaguna da Erraldoi eta Buruhaundien konpart-
sen jatorria. Mendebaldeko kristau ohituraren
barruan, argibide guztiak bat datoz haien lehe-
nengo agerpenak Erdi Aroko ospakizun garran-
tzitsuenek eskatutako itxura eszenografikoekin
lotzerakoan. Egun arte ezagutzen den berririk
zaharrenak, 1263. urtean Lisboako iparraldean,
Allenger hirian, Izpiritu Santuaren Prozesioan ido-
latria sinbolizatzen duten Erraldoi eta munstroen



Konpartsen Jatorriak: San Kristobal.
(Argazkia: Jose Luis Insausti).

eransketa agertzen digu. Era berean, badakigu
1380. urtean Bartzelonako Corpusaren Prozesioak
irudi eta pertsonaia biblikoak zituela, zeintzuen
artean David erregea Goliat Erraldoiarekin eta San
Cristobal -beste erraldoi bat- Jesus haurtxoarekin
sorbaldan nabarmentzen ziren. 1398. urtekoa da
Erraldoi flandestar bati egindako lehen aipamena,
San Cristobal bat hain zuzen ere, Ambereseko
kaleetatik prozesionalki ibili zena.

Gaur egun ezagutzen ditugun Erraldoi eta
Buruhaundiekin antzekotasuna agertzen duten -
maila handi edo txikiago batean- ospakizun ele-
mentuen berri izan dut. Horrela, XIV. mendearen
bukaeratik aipamen ugari egiten da herensuge,
Taraska, dordoka, arrano, animalia harrigarri,
mozorro eta garaipen-gurdiei buruz, batzutan
sinbologi erlijioso eta politikoz beteta eta beti ere
jendetzaren animua hunkitu, harritu edo diberti-
tzeko funtzioarekin.

Elementu guzti hauek adierazpen anitzenetako
ospakizunetan aurki daitezke, hala nola koroape-
netan, kanonizazioetan, ezkontzetan, hiletetan
eta beste gertakizun bitxietan, baina baliabide
teatral kopuru gehien eransten duen jai, zalantzarik gabe, Corpusa da. 1263. urteko Urba-
no IV.ak eraturako ospakizun honek -zegokion

Aita Santuaren buldaren bidez- oso azkar lortu zuten ospe handia.

Ospakizun egokiena zen ohizko prozesio erlijioso eta errege-segizioetan parte hartzen zuten ia efektu eszeniko guztiak biltzeko, lehenengoen izaera debozionala eta bigarrenen gorespen zentzua batzen baitzituen.

HISTORIA

Gaiarekiko interesen bat sentitzen duenarentzat, Mitologia Grekoak azaltzen digu Erraldoiak aspaldiko garaietan lurrazalaren azpian bizi ziren izakiz osatutako tribu edo herri bat zela.

Hilkorrek ziren baina gizonak baino askoz ere altu eta indartsuagoak, jainkoekin harreman estua zutelarik. Hesiodok hedatuki azaltzen ditu beste autore batzuk ere aipatzen dituzten (adibidez Homerok bere Odisean) izaki hauen ezaugarri eta jatorria. Erraldoi hauen ohiturak basatiak ziren eta, beren gaiztakerien ondorioz, jainkoen laguntza berarekin mundutik garbituak izan ziren.

Fabula edo kondaira mitologiko honen ohitura herrikoiz zintzoak (gutxi gora behera) oinarritzat hartuta, poesia eta arte greko nahiz erromatarrek



Mastricht. Hiria. Erraldoia. (Argazkia: Jose Luis Insausti).

gai epikora goratu zuten, Pindarorekin batera - Kristo aurretik 520. urte inguruan- drama kategoria lortuz jainkoen goresmenarekin, Erraldoien matxinadaren aurkako borrokan Zeus buru zutelarik.

Behin Saturno zerutik kanporatuta eta Zeus tro-noan eserita -inperioaren errege-, Erraldoiak matxinatu ziren agintetik kentzeko. Homerok bere Odisean aipatutako Erraldoi hauek, lurra eta Uranotik jaiotako gizonak ziren, altuera itzelekoak, beren indarrarengatik eskurazinak, eta beren itxuragatik beldurgarriak.

Zerura iristeko asmoz beren handinahikeria eta ausardia eroarekin Babel-dorrea eraiki zuten gizon haien semeen jatorri historikoan oinarritzen da fabula hau.

Tokian tokiko ohiturek Gigantomakia garatutako lekuari barietatea eman zioten, eta horrela, greziarrek Traciako eskualde zakarretan kokatzen duten bitartean, non ohitura eta mitologiak lehenengo ihauteri ospakizuna kokatzen duten, latinoek hegoaldeko Italiara daramate. Mitologiaren zenbait egileren arabera, Gigantomakiak Erraldoiak pertsonifikazio mistikoak bailitza azaltzen dizkigu, zeintzuekin irudimen herrikoiak, finkatutako qizarteen antolaketaren eta munduko elementu batzuen arteko borroka ezartzen duen; zibilizazio barbaro eta antolatutakoen arteko borroka, eta ikuspuntu honetatik, greziar mitologiak ezin izan zion lehentasunik kendu gaiari.

Euskal mitologian Erraldoi nagusiak Jentilak, Tartalo, Sanson, Roldan, Alarabi eta Basajaun izan dira gutxiago ezagutzen diren beste batzuen artean. Baina Euskal Herriko Folklorearen Erraldoi guztien artean Basajaun da zalantzarik gabe garrantzitsuena, benetako euskalduna.

Basajaun, basoko jauna da, ile luzeez jantzitako giza itxurako jainua, tailu eta indar harrigarrien jabe. Antzinako euskal basoetako jaun hau, inoiz gutxitan agertzen da izaki kaltegarri edo arrisku-tua bezala pentsaera herrikoian, nahiz eta bere itxurak beldurra eman, Basajaun ez da izan erasokorra legendazko kontuetan. Artzainak ohartzatzen ditu txistuen bidez ekaitzen bat gertu denean, era berean, otsoak ardiengana gertura daitezen eragotzi du. Beste batzutan kontu herrikoietan lehen nekazaritzat agertzen da, zenetik gizonak trikimailu baten bidez gari-hazia lortu eta bere landaketa ikasi zuten.

Tartalo, erraldoi eta indartsu izateagatik, jainu hau, askotan Jentilekin nahastua izaten da, nahiz eta guztiz desberdinak diren pertsonaiak izan. Torto eta Alarabi izenak hartzen ditu ere, eta

kopeta erdian begi bakarreko erraldoi antropomorfo-itzela da, baina Jentilak bezala honek ere izugarrizko indarra du. Hala ere, beste kontu batzuen arabera, Tartalo ez da euskal pertsonaia, mitoa baizik. Europatik inportatua dirudi. Ez dirudi txiripa denik euskal erraldoia eta greziarra hain antzekoak izatea, Homeroren Odisean agertzen den Polifemo.

Alarabi, Markinan diotenaren arabera mendietan bizi den ziklopeo izaerako jeinua da. Giza itxuraz deskribatzen dute, baina oso beldurgarria, kopeta erdian begi bakarrekin eta oinarri biribileko oin edo hanka batekin apatxatzat, zalantzarik gabe Tartaloren mitoaren aldaera zonala da, askotan Basajaunekin nahastua, zeintzuk batzuk historiako lehen artzaintzat hartu dituzten.

Jentilak, pluralean jentil edo paganoaren balioki-dea da. Euskal folkloreak erraldoiak dira, mendietako biztanleak, bailarara jaisteari aurka egin ziotenak. Gutxitan egin zuten baina horrelakotan gaizki irten ziren. Izugarrizko indarra zutela esan ohi zen.

Roldan, pertsonaia historikoa, Carlomagnok komandatzeko armadan atzealdearen kapitaina, Orreagan izan zen erasoan, Nafarroan. Mami eta hezurrezko gizona izan bazen ere, borroka ospetsuan hil zena, Roldan kondaira herrikoian parte osatzera iragan zen, jeinu bilakatuta, Nafarroan bereziki. Jentilen eta Sansonen antzeko eginkizunak bereganatu ditu, lehenengoan nor-

tasuna indarrez bereganatuz. Nafarroako kondaira batek dio Roldani buruz, haitzulo batetan hazi zela ahuntz baten esnearekin elikatuz hemezortzi urte egin zuen arte eta bere indar fisikoa elikadura berezi horri zor ziola.

Sanson, bere indar izugarriarengatik karakterizaturako pertsonaia biblikoa, Euskal Mitologian Jentilen eginkizun propioak bereganatzera iragan zen.

Giganteria, zenbait prozesiotan garraiatua izan ohi zen irudi erraldoia definitzeko erabiltzen den adjektibazioa dugu. Giza itxurako irudi batzuk aipatzen dira ere hurrenez hurren, neurri handiak batzuk eta nanoak besteak, soinuaren hotsean dantzatzeko beren presentziarekin herri askotako jai herrikoiak berotu ohi dituzten buru erraldoiak.

EUSKAL HERRIA

Euskal Herriari dagokionez, aspaldiko garaietatik izan dira erakutsiak erraldoi eta buruhaundiak herriko jai, prozesio eta desfileetan. Aipaturako prozesio hauetan hartzen zuten esanahia zehatz-mehatz ez dakigu, modernoagoa izanik hauek dantzarazteko ohitura.

Badirudi Euskal Herriko erraldoirik zaharrenak Nafarroakoak izan direla, Iruñekoak zehazki. XIV. mendean jada, ezaugarri adierazgaitzekin bada ere, koplak zahar batetan esaten denaren arabera beren izatea ezaguna da. Arturo Campionek bere elaberri batean, 1276an San Ferminen prozesioa-



Euskal Herria (Argazkia: Jose Luis Insausti).

ren aurretik zihoazen egurrezko hiru erraldoiak aipatzean egiten duen deskripzioa lehenagokoa da ere. Pertsonaia hauek, 1520an suntsitutako Iruñeko Santa Eulaliaren Komentuko klaustroan margotutako animalia dantza bati zegozkion. Erraldoi hauek "Pedro Suciales" -ikatz zakuak zahagiengatik trukatzten zituen Ikazkina-, "Mari Sociales" -bere aizkorarekin zekale Taloak moztzen zituen aizkolaria-, eta "Jucef Lucurari"- antipatia pertsonifikatzen zuen txontxongilo beltz barreagarria- ziren.

Zehatzagoak dira 1600an Corpusaren eta San Ferminen prozesioak lagundu zituzten erraldoiekiko aipamenak.

1607an erraldoiak ateratzeko arduraduna Juanes de azcona nekazaria izan zen, koblakari batek lagunduta. Juan de Torrobas arotzak 1620an hiriko lau erraldoiak konpondu zituen, lan horregatik 88 erreale jasoaz. Urte horretan lau erraldoiak atera ziren su apainez jantzita, XVII. mendeko jai aipagarri guztietan zehar ohitura hau jarraitu zelarik.

1686an erraldoiarentzat janzki berri eta konponketak enkargatu zituen hiriak, XVIII. mendean zehar kutxa municipalen kontura. Erraldoiak, hala ere, katedralarenak ziren.

XIX. mendean zehar udaletxeak Erraldoiak, Buruhaundiak, Kilikiak eta Zaldikoak erosi zituen, urteren buruan beste erraldoi berri batzuekin berriztatuz, Europa, Asia, Afrika eta Amerika irudikatzen zituztenak.

1789an Carlos III.aren orden baten promulgazioarekin jakinarazi zen: "erreinu hauetako Eliza, Katedral ala Parrokietan, aurrerantzean dantza eta Erraldoirik ez egotea eta guztiz gelditzea praktika hori prozesio eta bestelako eliz-funtzioetan".

Bizkaian datarik zaharrena 1605eko Abenduaren 4arena da, Corpusaren prozesioetan zein beste jai ekitaldietan lehenengo erraldoiak agertzen direnean. Data horretan Antonio de Ibernía deitutako pintore batek, Corpusaren jaietan urtero ateratzen zirenean, erraldioen aurpegiak zuzendu eta jantzeko enkargua zuen. Eta jarritako arretari erantzunez, Bilboko Udaletxeak bederatzi urtetako kontratua luzatu zion, urtero 240 erreale eskuratuz eta jantziaren osaketarako beharrezkoak ziren arropak hornituz.

Gipuzkoan, 1622ko Abuztuan, San Ignacioren kanonizazioa zela eta, erraldioen bilketa bat egon zen Azpeitian, garaiko dantza bat dantzatuz. Ekitaldi honetan zaldikoak ere agertzen dira, Nafarroan zein Lantz eta Zamaltzaineko ihaute-

rietan maiz ikus daitezkeenak, Zuberoako maskaradaren parte direnak.

Tolosan, bazen lantegi bat 1657. urtean; Francisco Azpillaga zen bertako nagusia, erraldoiak egitera dedikatzen zen artisauek ospetsua. Urte horretan Franciscok zortzi erraldoi eraiki zituen 1428 errealengatik Iruñeko udaletxearentzat. Jai haietako zirrara konpartsa berria izan zen.

1660an, Donostian, ihauteri jaiak iragartzen zuten kabalgatan zein herri-ospakizunetan lehenengo erraldoiak ateratzen hasten dira.

Montrevillo frantses abadeak bere eskutitzan dioenez "zuriz jantzitako ehun bat gizon ikusi nituen igarotzen, hanketan kriskitinekin eta ezpatekin dantzatzen, bakoitzak bere lagunaren ezpataren punta eskuan zeramala. Atzean berrogeita hamar mutikok egiten zuten dantza paper edo larrutxko mozorroz hornituta. Baina interesgarria dena da ondoren Errege Mairuen zazpi irudi zihoazela, bakoitza zegokion emakumearekin atzean eta bi bat piketako altuera zuen San Cristobal bat, eta beren buruak teilatu-arrasean igarotzen ikusten zirela. Barruan ezkutatutako hiru gizonen dantzazten zituzten; altzairuz eta margotutako oihalez eginak zeuden".

1882an, XV. mendeko janzkiak zeramatzen heraldo bikote batek irekitzen zuen martxa zaldiz, Danbolina, erraldoi bikote bat eta lau buruhaundik jarraitzen zituztela.

1884ko Urtarrilaren 20an Alemaniatik ekarritako bi erraldoi izugarri eta Iruñeko Udaletxeak emandako lau buruhaundik desfilatuz zuten.

Jose Arana enpresariak, 1897an jaiak girotzeko erraldoi eta buruhaundien konpartsa bat ekarri zuen, urte askotan zehar aritu zena, eta horrela joan ziren berriztatzen erraldoi eta buruhaundiak gaur egungoetara iritsi arte.

Gasteizen jakina da 1643an erraldoi eta buruhaundiak ateratzen zirela San Prudentzioko jai eta kabalgata zela eta, baita Corpusaren prozesioan ere, 1728an Erraldoi eta Buruhaundien bilketa bat ospatu zelarik.

Asisko San Franciscoren zenbait semeren kanonizazio eta beatifikazioa zela eta ospatutako prozesioan, dantzariekin batera zortzi erraldoi eta bi buruhaundiak aritu ziren.

1917an, Gasteizko Hiriko Etxean lehenengo bi erraldoi bikote eta lau buruhaundi berriak jaso ziren. Ekimen herrikoiaz egin ziren, gastuak estali zituen harpidetza baten bidez. Iritzi asko egon zen irudikatu beharko zituzketen eredu herrikoien inguruan, bikote batek Aramaionako aldean

eta besteak mendiko jendea irudikatuko zituela zehaztuz, lehenengoarekin hobeto asmatu zelarrik. Buruhaundiek, Celedón, Cachán, el escachapobres -kapela altua eta lebitaz jantzita-, eta Gasteizko pintoreak irudikatzen zituzten.

1929. urtean, buruhaundi berriak egin ziren baina inor pertsonifikatu gabe.

1943an, Fournier etxeak erraldoi berriekin irudikatu zituen bere kartetako lau erregeak, eta horrela joan ziren berriztatzen erraldoi eta buruhaundiak Gasteizen gaur egungoetara iritsi arte.

Ez ziren soilik hiriburuak beren Erraldoi eta Buruhaundiak erakusten zituztenak, bestelako herrietan ere hala egiten zen, baina garai hartan batez ere Nafarroa aldean izan zen. Gaur egun Donostia, Iruñea, Gasteiz, Bilbo, Baiona eta Miarritzek, Euskal Herriko beste herri askok bezalaxe, konpartsa handiak dituzte. Hauetako gehienak Irungo Javier Garate gazteak eraikiak dira, 1983. urtetik Txilipurdi enpresaren nagusia.

Orain dela urte asko, erraldoi eta buruhaundien konpartsa gehienak Madrilgo Francisco Losadaren eta Zaragozako Aragonesa de Fiestas enpresetan eraikitzen ziren.

Irungo artisau honen lan trebea oihartzun gehiago lortzen doa, horrela, lehenago esan dudan bezala, beste herrietatik enkarguak jaso ditu, Beasain, Oñate, Usurbil, Lasarte, Hendaia, Irun Orereta eta bereziki Hondarribiara destinatutakoa, non Erraldoi eta Buruhaundien konpartsa osoa egin zuen. Javierrek bere lanetan ikusgarritasuna eta erosotasuna (erraldoia garraiatzen duenarentzat) bateragarriak egiteko irtenbideak bilatzen ditu. Erlatiboki arinak diren irudiak bilatzen ditu, gidatzen dituenak bizkortasuna irabazten duelako.

Javier Garatek azaldu didanez, arropak, gainera, zabalak izatea gustatzen zaio mugi daitezen.

ORERETA

Oreretan, jakina da 1919ko Maiatzean Madrilgo Francisco Losadaren enpresari egiten zaiola enkargua -Erraldoi eta Buruhaundiak egiten dituen enpresa- urte horretako Uztaierako konpartsa eraiki dezan.

Enpresa garrantzitsua izan zen Francisco Losadarena, konpartsa garrantzitsuak eraiki baitzituen hiri eta herri askotan. Badakigu Gasteizek 1917an enkargatu ziola enpresa honi bere konpartsa berria. Badakigu ere enpresa honek 1915ean Euskal Herriko udaletxeetara beraiek egindako erral-

doi eta buruhaundi desberdinen informazioa helarazi zuela, argazki, altuera, pisua, salneurri eta abarrekin.

Oreretako Udaletxeak erraldoi eta buruhaundiak egitera dedikatzen diren hiru enpresen informazioa jaso zuen. Lehenago aipatutakoa da bat, beste bi katalanak, Benito Escaler eta J. Millat, eta bat Balentziarra. Porta-Coeli.

1918an udal-kontseilua, Oreretak bere erraldoi eta buruhaundien konpartsa izatearen beharra planteatzen hasten da. Horrela, Udaletxea bere lehenengo konpartsez jabetzen da, harrera beroa izanik.

Herri osoak lagundu zituen pozaldi bikainarekin, Santa Maria Magdalena bezpera zen 1919ko Uztaierak 21 hartan kale eta enparantzak beteaz.

Udal-artxiboan agertzen denez, Erraldoi bat, Giganta bat eta bi Buruhaundiz osatuta zegoen konpartsa.

Eskaerak honela dio:

Muy Sres míos:

Por acuerdo de este Ayuntamiento ruego a UDS. se sirvan enviarnos una pareja de Gigantones vestidos a la usanza de este país y su correspondiente pareja de cabezudos cuyo precio de 450 ptas.



Fernández de Landa plazan Oreretako buruhaundi eta erraldoiaen konpartsa 1951. urtean. Biteri eskola. (Argazkia: Jose Luis Insausti).



1951 Urtea.

Zutik: Amparo Rodriguez, Celes Gonzalez,
M^a Angeles Gonzalez, XX, Ricardo "Kaito",
Maritxu Kabada.

Makurtuta: Angel M^a Kabada, Consuelo de los Mozos,
Lutxi Rodriguez.

Haremos efectivo en tres anualidades según las condiciones establecidas por UDS.

Francisco Losada enpresak Oreretako Udaletxeari eskutitz bat bidali zion (Enrique Elicechea, lehenengo Alkateordeari zuzenduta, D. Ramon Illarrendi buru izan arren) ordainketa baldintzekin, enbalaketarengatik 12 pezetan gehiketa aipatuz.

| | |
|----------------|-----------------|
| 1919ko Uztaila | 162 pta. |
| 1920ko Uztaila | 150 pta. |
| 1921ko Uztaila | 150 pta. |
| GUZTIRA | 462 PTA. |

1923. urtean lau buruhaundi berri erosi ziren 81 ptako salneurrian, eta beraientzat jantziak 50 ptako salneurrian, zenbateko hau bi urtetan ordaindu zelarik fabrikatzaileak ezarritako baldintzen arabera:

| | |
|----------------|-----------------|
| 1923ko Uztaila | 35 pta. |
| 1924ko Uztaila | 46 pta. |
| Jantziak | 50 pta. |
| GUZTIRA | 131 PTA. |

1931an, Udal-Batzorde iraunkorrek urte horretako Patroi-Jaien aurrekontuan bi buruhaundi berriren erosketa 100 ptako prezioan jasotzea erabaki zuen, fabrikatzaileak ezarritako ordainketa baldintzekin:

| | |
|----------------|---------|
| 1931ko Uztaila | 50 pta. |
| 1932ko Uztaila | 50 pta. |

Jantzien konponketa eta garbiketa 25 pta.

GUZTIRA 125 PTA.

Udal-Artxiboa. 4.Liburua. 1go Espedientea. B Atala. 3. Bulegoa.

*Los chicos en correcales
el alguacil por delante
¡hay que ver, amigos míos
que bien bailan los Gigantes!*

*¿Hay algo más sano que esto?
La verdad es que yo lo dudo
son para alegría los
Gigantes y Cabezudos
Maravilla de chiquillos gracia de
hombres forzudos
son nuestras fiestas los
Gigantes y Cabezudos*

*¡Qué bien bailan los Gigantes
delante de la Patrona!
Es que los bailan
Miguel Erkis e Iñaki Badiola.*

ERRALDOI ETA BURUHAUNDIEN KONPARTSAREN PARTE HARTZEA BESTE HERRIETAN

1919an Orereta Erraldoi eta Buruhaundien konpartsa jabetu zenetik, urteen igarotzearekin batera oso handia izan zen ondoko herri desberdinen konpartsaiekiko mirespena. Horrenbestez, 1930an Hondarribiako Udaletxeak, bere alkatearen bitartez, Oreretako Udaletxeari beren patroijaietan Erraldoi eta Buruhaundien konpartsa lagapenarengatik udal-erabakia helarazi zion.

Erabakiak horrela dio:

La comisión municipal permanente que me honro en presidir, en sesión ordinaria celebrada la mañana del día de hoy, acordó en sentir unánime testimoniar a UD. y a sus dignos compañeros de concejo, el más vivo agradecimiento con gracias muy señaladas por la cariñosa cesión de su bonita colección de "Gigantes y Cabezudos" que en las fiestas locales últimas fueron el regocijo y alegría del vecindario; y con tal plausible motivo, ofrecerse a esa Corporación hermana para cuanto guste en justa reciprocidad.

Lo que con verdadera satisfacción participo a UD. para su conocimiento.

Dios guarde a UD. muchos años. Hondarribia 22 de Septiembre de 1930.

1931an, Lezoko "Peña BISHI-BISHI" Josteta-Sozietateak Oreretako Udaletxeari eskutitz bat bidali zion Erraldoi eta Buruhaundien Konpartsa eskatuz.



Zangotzako erraldoiak. (Argazkia: Jose Luis Insausti).

Horrela dio:

Sr. D. Gregorio Goicoechea.

Muy respetable Sr. nuestro:

Ante todo les rogamos nos perdone por el atrevimiento, pero en la confianza de que seremos atendidos es por lo que nos atrevemos a dirigirle estas líneas.

Seguramente habrá leído en alguno de los periódicos de la capital y en noticias de Lezo, sobre la formación de una Sociedad denominada "Bishi-Bishi" de quien ostengo el cargo de secretario. Pues bien; sabiendo de que el ayuntamiento del que tan dignamente y con todo orden ocupa UD. el cargo de Alcalde, nos dirigimos con todo respeto agradeciéndole a UD. se sirviera prestarnos para el día 5 del próximo mes, fecha de la inauguración de la Sociedad, los cabezudos que tienen UD. para sus fiestas patronales.

Desde luego puede tener la completa seguridad de que serían bien cuidados y devueltos en las mismas condiciones una vez de haber hecho con ellos el consabido "Corre Calles". Espero sabrá atender el favor que le pedimos por lo que le damos nuestras más expresivas gracias anticipadas.

Esperando sus noticias, mande cuanto guste a esta Sociedad y particularmente a este su affmo. s.s.q.e.s.m.

El secretario. Ricardo Salaverria.

1931ko Martxoaren 23an, Oreretako Udaletxeak eskutitz bat bidali zion aipatutako eskaerari erantzuna emanez. Horrela dio:

Sr. Secretario de la Sociedad "Bishi-Bishi".

Muy Sr. mío:

En vista de su atenta carta de fecha 27 de Febrero, en la que solicita para el día 5 del próximo mes de Abril, fecha de la inauguración de esa sociedad, se le presten los cabezudos propiedad de este ayuntamiento, ésta alcaldía accede a su deseo, siempre que como promete y no dudo sean devueltos en el mismo estado que al entregarles, para lo que daré órdenes al sobrestante municipal.

Con este motivo quede de UD. affm^o. s.s.q.e.s.m.

Sabin Olaizola Oreretako alkatea izanik, 1981-eko Donostiako Aste Nagusian, Oreretako Erraldoi eta Buruhaundien konpartsak beste gipuzkoar herrieta-ko konpartsekin batera Erraldoi eta Buruhaundien konzentrazio batean parte hartzen du gure konpartsa txalotuena izan zelarik zeren eta baltsa eta kalejira dantzatzeari aparte, dantza soltua dantzatzea animatu ziren bakarrak izan bait ziren. Sabin Olaizola alkateak ezin izan zuen konzentrazio honetan egon gestio municipalak zirela eta korporazioko ordezkaria Donostian Sabin Lasa izan zelarik, gure konpartsaren aktuazioa dela eta hunkiturik bueltatu zena.

1982-ko Pasai Antxoko jaietan, Oreretako Erraldoi eta Buruhaundien Konpartsak Pasaiko Erraldoi eta Buruhaundiekin batera parte hartzen du. Gonbidapena aurreko urtean Donostian izan zuten arrakasta dela eta burutzen da, berriro ere ikusleen mirespena sortu zutelarik.

UDALETXEAK EZ DU UZTEN KONPARTSAREN PARTE HARTZEA OIARTZUN ETA HONDARRIBIAKO PATROI-JAIETAN.

1931ko Uztaila eta Abuztuan, Oiartzun eta Hondarribiako Udaletxeetatik bi eskutitz jaso ziren beren patroi-jaietarako erraldoi eta buruhaundiak eskatuz, ezezkoa emanez udaletxe bioi. 1931ko Irailaren 2an, Oreretako Udaletxeak eskutitz bat bidali zion Hondarribiako Udaletxeari. Horrela dio:

Vista en sesión celebrada por este ayuntamiento en el día de ayer su atento escrito de fecha de 26 de Agosto por el que solicita a título de préstamo el grupo de gigantes y cabezudos propiedad de este municipio para que figuren en las fiestas próximas de esa ciudad, teniendo en cuenta que recientemente se ha denegado la misma concepción al Ayuntamiento de Oiartzun, ésta corporación acordó con sentimiento seguir el mismo criterio con la petición por UD. suscrita, lamentando verse en el trance de no poder complacer a esa ciu-



(Argazkia: Jose Luis Insausti).

dad para la que conserva la tradicional simpatía amistosa existente desde hace tiempo.

Dios guarde a Ud. muchos años.

Orereta, 2 de Septiembre de 1931. Alcalde Presidente, Paulino Garcia.

ORERETAKO ANTZINAKO ERRALDOI ETA BURUHAUNDIAK

Erraldoi eta Buruhaundien konpartsak -ezin zitekeen beste era batera izan- betidanik izan ditu pertsona batzuk, batetik bere mantenu eta konponketetaz arduratuak, eta bestetik kalerako irteerak zuzentzeko.

Egungo mende-erditik hona, ardurak biok pertsona berei egokitu zaie, areago, logikoki, beraiek direnean ardurak eskatzen duen jarduera guztiari erabat eusten diotenak.

Konpartsaren arduradunak guzti hori posible egingen duten gizonak dira, erraldoi eta buruhaundiak Erraldoi eta Buruhaundiak izan daitezten, eta hurrek jarrai dezaten haurrak izaten beren adina axola gabe.

Konpartsaren 79 urtetan zehar, ez dira asko izan beretaz arduratu direnak, nahiz eta ona izango litzatekeen jasota geratzea, bizia eman dioten gizon guztiak arduradunak izan direla beren erara, zaletasun eta maitasunaz, dantzarazi, paseatu edo kurriarazi zituzten irudiei beraiek eskainitako bihotzarekin.

Oraindik ditugu gogoan Oreretan antzinako Erraldoi eta Buruhaundiak zein gizon haiek, hainbeste urtetan zehar aipatutako konpartsa eraman zuten

udal-langileak: Marcelo Bengoechea "Zorrotz", Rufino Beldarrain, Lucas Usabiaga, Juanito Erkis, Eugenio Franco, Leonardo Goñi, Gabino Larrain, Petrikorena, Celes Gonzalez, Rikardo "Kaito", Alberto Gastesi, Martin Sagarzazu eta Konstantino Gomez izan ziren.

Demonioa, Indioa, Beltza, Xaku eta Lepo izan ziren buruhaundi haiek, eta azken biak, Oreretako pertsonaia oso ospetsuak, Guda Zibilaren garaian lan batailoietan zeuden balentziar batzuk karikatura egin eta burutuak izan ziren.

1976ko Magdalenen bezperan, Saku hil eta bere kartoizko mozorroa ez zuen gainerako konpartsarekin desfilatu urte hartan, dolumina adierazteko.

Arrazoi bat edo bestegatik ahaztuta geratu ahal izan diren konpartsako gizon guzti haien zat denbora ez da agortu. Eskertasun orokor horri gaineratzeko beste egite bat gehiago izan bitez lerro hauek.

ERRALDOIEN ERAMALEEN OMENEZ:

MIGUEL ERKIS

IÑAKI BADIOLA

UNAI ERKIS

DAVID GARCIA

*¡ Qué bien bailan nuestros Gigantes,
qué goces elementales traen a
nuestra pequeña villa que
vive que sueña con
músicas celestiales!
Escondidos manantiales
de pasacalles y valeses
bailais vosotros cuando
escuchais el sonido del
Txistu para que bailen
nuestros Gigantes.*

ERRALDOI BERRIEK 1984ko MAGDALENETAN DESFILATZEN DUTE

Erraldoi berrien berregintza 1984. urtean burutzen du Empresa Aragonesa de Fiestas delakoak, 1984ko Otsailaren 17ko batzorde iraunkorrek hartutako erabakiaren arabera 270.600 pezetako prezioarengatik. Aipatutako berregintzan buruak, eskuak, jantziak eta gigantaren koletak kontentzen dira.

Aragonesa de Fiestas delakoak aurkeztutako aurrekontuak honela dio:

Zaragoza, 16 de Diciembre de 1983.

2 cabezas nuevas reproducción idéntica a las que actualmente disponen en sus figuras de gigantes, representando hombre y mujer regionales vascos con trabajos especiales de adaptación. **38.000 x 2 = 76.000 pts.**

2 coletas de pelo, para acoplar a la cabeza de la figura gigante mujer a adquirir según presupuesto que nos han facilitado **14.000 pts.**

2 equipos vestuarios completos, confeccionados en el mismo tipo de tejido que los antiguos que actualmente disponen, según sus instrucciones **47.000 x 2 = 94.000 pts.**

4 figuras de manos de nueva fabricación moldeadas con reproducción idéntica a las deterioradas que ahora disponen para las dos figuras de gigantes citados. **9.500 x 4 = 38.000 pts.**

222.000 pts.

5% IMPTO. TRAF. EMP **11.100 pts.**

Cantidad estimada para compensación, gastos de desplazamientos de vehículo de esta casa, en dos viajes de ida y regreso cada uno, el primero para recoger las figuras antiguas y el segundo para la entrega de l o nuevo fabricado. **37.500 pts.**

SUMA PESETAS 270.600 PTS.

1 figura moldeada de anatomía de pecho de mujer para acoplar al cuerpo de mimbres del gigante mujer que tienen. **OBSEQUIO-SIN CARGO**

Validez de este presupuesto. Hasta 30 de Enero de 1984.

BURUHAUNDI BERRIEK 1987ko MAGDALENETAN DESFILATZEN DUTE

1987ko Martxoaren 26an egindako bileran, kultura eta kirol batzordeak, herrizaintza batzordeari sei buruhaundi eta beren jantzien erosketa proposatzea adosten du; zenbatekoa guztira



Erraldoi berria. 1984. Miguel Erkis eta Unai Erkis. (Argazkia: Jose Luis Insausti).

400.000 pezetakoa izanik, aldeko erabakiarekin, Irungo Txilipurdi Tailerrari eman zitzaion sei buruhaundien burutzea -Poliester eta Beira-Zuntz materialean-. Buruhaundi hauek Landarbasoko haitzuloetako ustezko biztanle batzuk itxuratzen dituzte.

Sei buruhaundiak bi Ehiztari (Inozoa eta Astakiloa), Intxixua, Nagusia, Emakume zaharra eta amatasuna sinbolizatzen duen Emakume batez itxuratuak daude.

Txilipurdi Tailerrak aurkeztutako aurrekontuak honela dio:

Irún a 15 de Marzo de 1987

Este presupuesto es sobre la figura "Cabezudo". La variación del precio depende de la complejidad de la figura y detalles que configuren la misma y el vestuario.

1 CABEZUDO

Figura entre 50.000 y 55.000 ptas.

Vestuario entre 10.000 y 15.000 ptas.

Completo entre 60.000 y 70.000 ptas.

6 CABEZUDOS

Sin vestuario entre 300.000 y 330.000 ptas.

Completos entre 360.000 y 420.000 ptas.



Erraldoiak dantzaratzea. (Argazkia: Jose Luis Insausti).

Este presupuesto es orientativo entendiendo que puede oscilar en función de los detalles de las figuras, quedando concretos y definitivos los presupuestos una vez confirmados los diseños.

ERRALDOIAK DANTZARAZTEA

Erraldoiak dantzaztea erabateko artea da, estetika eta plastikotasun gabea ez dena. Eta hori Miguel Erkis eta Iñaki Badiolak, egungo erraldioen garraiatzaileek ondo egiten dakite.

Inork ez daki, garraiatzaileen sorbaldek daramaten 44 kilo eta 4 metroko altuera duen hutsunean, gorputz-ilun geldoan sartzen direnek izan ezik, inork ez daki -berriro diot-, Txistu edo Dultzainaren soinura ibili eta kulunkatzeak eskatzen duen trebetasuna.

Gai honetan iaioa ez naizen arren, erraldoiak dantzazteak -hauen bertikaltasunaren mantentzerako-, esfortzu eta izate fisikoak, indar eta trebetasuna eskatzen duela ondorioztatzen dut. Bira zorabiagarriak menperatzeko abiada, urratsetan arintasuna, biratzeetan trebetasuna, erraldoiak bals eta kalejira egokiaren erritmora mugitzea, eta horretaz gain, erraldioen eta eramaten dituztenen pisuan oreka perfektua finkatzea.

Konpartsaren kideek gure jaietan zehar garatzen duten lana gorestekoa da, bistan denez.

Hala ere, konpartsaren girotik atereaz gero, eskertasunak urriak izan dira. Baina, talde horretan bizitza nabariki aldatzen da. Eguneroko izerdiak ulertzen dituzten horiek -beren jai-ajearekin edo- badakite erraldoi eta buruhaundi bakoitzaren barruan jai egunetan zehar bizitza ematen dion gizon bat dagoela.

Konplitzea, erantzukizunaren zentzu guztiarekin konjugatuta, Erraldoi eta Buruhaundien Konpartsaren esentziaren parte osatzen duen aditza da.

Lehenengo edo azken eguna bada ere, egunero konplitzea idokitzen zaie eta konplitzen dute. Edozein zirkunstantzia baztertu eta nekearen gaineratik, jendeak egunetik egunera gero eta gehiago behartzen ditu eta atseginez egiten dute haurrak eta zaharrak gozaten ikustean.

Bai arraza baten (herrialde baten) ereduak eta bai karikaturan jarritako pertsonaia historikoen egurrezko edo kartoizko panpinak diren aldetik, Erraldoi eta Buruhaundi hauek gehienetan, uste baino aspaldikoagoak dira.

* * * * *

Zuei, Erraldoi eta Buruhaundien eramale eta Txistularioi, zuen dedikazio, zaletasun, jasapen eta esan beharra dago, Artearekin ere, une batez haur, gazte eta zaharren bizitza betetzen duzuenoi, logalea, nekea eta aurreko gauaren ajea etxean utziz, Jaiaren distirari laguntza emateko.

HAURRA ETA BURUHAUNDIA

Era un niño que soñaba con un Cabezudo.

Abrió los ojos el niño y el Cabezudo no vió.

Con un Cabezudo el niño volvió a soñar;

Y de la mano lo cojió; ahora no te escaparás!

Apenas lo hubo cojido, el niño se despertó.

Tenia la mano cerrada y; el Cabezudo desapareció!

Quedándose el niño muy serio pensando que no era verdad un Cabezudo soñado.

Pero ya no volvió a soñar y ese niño se fue haciendo mayor.

Y el joven tuvo un amor y su amada le decía:

¿Tú eres de verdad o no mi amor?

Cuando el joven se hizo mayor pensaba:

Todo es soñar el Cabezudo soñado y el Cabezudo de verdad.

Y cuando vino la muerte el viejo a su corazón

Preguntaba: ¿Tú eres sueño?

¡Quién sabe si despertó y si el Cabezudo vio.

J.L.I., Oreta 1998